

Lezoko Unibertsitateko Udala

LEZOKO UDALAK ANTOLATZEN DITUEN GAZTEEN AISIALDIA, ETA MERKATARITZA ETA ERAKUNDEAK EUSKALDUNTZEKO PLANEN INPLEMENTAZIOA EGINGO DUEN ENPRESA KONTRATATZEKO BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN AGIRIA.

(Esped. 2012KU170001)

1.- XEDEA

Kontratu honen xedea ondoko zerbitzu-eskaintza arautzea da: Gazteen aisialdia, eta Merkataritza eta Erakundeak euskalduntzeko Planen inplementazioa.

2.- IRAUPENA

Esleipena bi urtekoa eta beste birako luzagarria izanago da.

Kontratu hau indarrean dagoen bitartean, Udalak zerbitzua zabaldu edota murrizteko eskatu ahal izango dio —beti ere %10aren barnean— esleipendunari. Zabalpen edo murrizketarik balego, prezioan eragina izango du aldaketa dagoen unetik bertatik, beti ere, esleipen-prezioa ezartzeko erabilitako irizpideetan oinarrituta.

3.- KONTRATAZIO MODUA

Prozedura irekia eta Lehiaketa Publikoarena izango da esleipena egiteko erabiliko den modua.


4.- ESLEIPENDUNAK EGIN BEHARREKOAK

· Ekintza den denak euskaraz burutuko dira, eta langileen arteko komunikazio eta lan hizkuntza ere euskara izango da.

· Gazteen aisialdi esparruan, eta merkataritza eta erakundearen artean euskararen erabilpena areagotzeko indarrean diren egitasmoen planifikaziorako, kudeaketarako eta koordinaziorako Egitasmoen Koordinatzaile bat jarriko du lanean egokien deritzon lan-jardunarekin.

4.1.- Gazteen Aisialdiko programa (*Kuadrillategi*) kudeatu, dinamizatu eta kontrolerako esleipendunaren betebeharrak.

- a) *Kuadrillategi* egitasmoaren iraupena urriaren erdialdetik, ekainaren erdialdera bitartean, —Urteko lan egutegia irailan zehaztuko da—. Gehienez 75 gazte inskribatu ahal izango dira.




Lezoko Unibertsitateko Udala

- b) DBH1, DBH2 eta DBH3 mailan dabilzan gazteei zuzenduko zaie Kuadrillategi gazteen aisialdirako egitasmoak. Talde bakoitzean, gutxienez, bi begirale arituko dira eta taldeek, gehienez ere, 25 parte hartzaile izango dituzte.
- c) Urteko programaz arduratuko da. Ostiralero bi orduko (19:00-21:00) maiztasunarekin eta puntualki asteburuetan, ekintza ezberdinez osatutako jarduerak osatuko dute programazioa. Esleipendunak zerbitzua ematen hasi aurretik Kuadrillategi burutzeko programazio zehaztua aurkeztu beharko du Udaleko Euskara-Kultura Departamentuan.
- d) Monitoreak aurkitu, edo hala behar izanez gero ordezkatzear gain, monitoreen lana eta jarduera guztiak koordinatzeaz arduratuko da koordinatzailea.
- e) Aurreko puntuan aipatutako programazioarekin batera, aisialdi programaz behin-betikoz arduratuko diren koordinatzaile/zuzendari orokor eta monitoreen zerrenda (izen-deiturak, NA eta helbide osoa) eta bakoitzaren titulazio akademikoa adierazten duen ziurtagiria aurkeztu beharko du esleipendunak.
- f) Gazteen izen-emate kanpaina, izen-emateen kudeaketaz eta taldeak definitzeaz arduratuko da. Inskripzioa irailean egingo da.
- g) Egitasmoen Koordinatzaileak, Udaleko hizkuntza dinamizatzailearekin koordinazio zuzena egingo du adosten den maiztasunaz.
- h) Ikasturte amaieran, jarduera eta abarren balantzea biltzen duen memoria eta balantze ekonomikoa aurkeztuko du eta datorren urterako kudeaketa plana.
- i) Planaren bilakaera egokiago izan dadin proposamenak egiteko aukera izango du.
- j) Kontratazioaren helburu eta bertan ezarritako mugei dagokionez, zerbitzua egokitasunez betetzea.
- k) Euskara-Kultura departamentuko arduradunak emandako lan ardatzei jaramon egitea.

4.2.- Merkataritzan (Komertzioa, ostalaritza eta) eta Erakundeen hizkuntza normalizazioan eragiteko planak kudeatu, dinamizatu eta kontrolerako esleipendunaren betebeharrak.

- a) Izenburuan aipatzen diren planak urte osoko iraupena dute.
- b) Plana berriro abian jartzen delarik komertzioen eta entitateen diagnostia egingo da bisitaldien bidez datuak jasoz.




Lezoko Unibertsitateko Udala

- c) Planak eragiten dieten herriko komertzio eta erakundeen jarraipenerako datuen basea osatu eta mantentzeaz arduratuko da.
- d) Oarsoaldea B.A.ren Euskara Batzordearen ardurapena dagoen Merkataritza Mahaian parte hartuko du eta han erabakitakoak bideratuko ditu.
- e) Oro har, planean parte hartzen duen agente bakoitzaren segimenaz arduratuko da, behar diren bisiten bidez.
- f) Komertzio eta Erakundeen hizkuntza beharrei aurre egiteko prest egon beharko du astelehenetik ostiralera, bai bulego batean edota telefonoren batean, 10:00-13:00 eta 17:00-19:00 bitartean.
- g) Komertzioa eta Entitateak euskalduntzeko aurreikusiak dauden zerbitzuen (Itzulpen zerbitzua, karteldegia, errotuluak euskalduntzeko dirulaguntzak, hizkuntza aholkularitza, ...) berri emango die bakoitzari eta horiek egindako eskaerei erantzungo die (Itzulpenak, kartelak, aholkuak, ...).
- h) Urtean zehar koordinatua egongo da Lezoko Udaleko hizkuntza dinamizatzailearekin. Horretarako egingo diren jarraipen bileretara etorri beharko du.
- i) Urte amaieran, pasa den urteko memoria aurkeztuko du eta datorren urterako kudeaketa plana.
- j) Planaren bilakaera egokiago izan dadin proposamenak egiteko aukera izango du.

4.3.- Oro har, egitasmo guztietarako:

- a) Zerbitzua emateko beharrezkoa den pertsonala eskaintzea.
- b) Lan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzera. Lezoko Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.
- c) Jardueraren baitan gazteek jasan lezaketen edozein motatako istripu edo gertakari kaltekorri aurre egin ahal izateko, esleipendunak Kuadrillategi programa bere hedadura osoan estaliko duen Erantzukizun Zibileko Asegurua itundu beharko du entitate aseguratzailearen batekin, beti ere indarrean dagoen legeriak asegurugintza eta erantzukizun zibilaren esparruan xedatuari jarraiki. Aipatu erantzukizun zibileko aseguruak, gazteen gaineko kalteez gain, jarduera antolatzearen ondorioz gerta litekeen beste edonolako kalte, narriadura eta galera kalte ordainez estaltzeko adinakoa izan beharko du.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- d) Plegu honetan xedatutako edozein betebeharrak burutzeko sor litezkeen eragozpen edo atzerapenen aurrean esleipendunak aldaketarik egin beharko balu, ezinbestez udal Euskara-kultura zerbitzuari jakinarazi beharko lioke aurrez; proposatutako aldaketa Tokiko Gobernu Batzarrak ontzat eman dezan.
- e) Esleipendunak zerbitzua eskaintako baldintzetan eman beharko du eta ezingo du hirugarrenik kontratatu.
- f) Lezoko Udalak horrela eskatuta, esleipendunak bere langileen lan-kontratuak, nominak, afiliazio-dokumentuak eta gizarte-segurantzako kotizazioa entregatu behar ditu.
- g) Zerbitzuaren prestazio normalean eragin izan dezaken lan greba edo gatazkarik egonez gero, esleipendunak alde aurretik eman behar dio horren berri Udalari, honek bere aldetik bidezko neurriak har ditzan.
- h) Ematen duen zerbitzu eta prestaketaren kalitatearen erantzule izango da, baita zerbitzu desegokiaren edota beste hutsegiteren bat dela medio, Udalari edota hirugarren bati eragin diezaioketen ondorioetan ere.

Era berean, kontratua prestatzeak, esleitzeak eta formalizatzeko, nola iragarkiak argitaratzeko eta, kasua balitz, kontratua eskritura publikoan jasotzeko, horrek guztiak sortzen dituen gastu eta tasa guztien ordainketa egiteko obligazioa du kontratista/esleipendunak, beronen kargurakoak direlarik, halaber, zerga guztiak, BEZ barne, esleipen-prezioaren baitako kontsideratzen da.

Esleipendunak Udalaren esku jarriko du aipatutako betebeharrak egiaztatze beharrezko den dokumentazioa. Esleipendunak onartutako obligazioak beteko ez balitu Udalak badu bete ditzan eskatzeko ahalmena, nola kontratua deuseztatutzat deklaratzeko.


5.- LEZOKO UDALAREN KONPROMISOAK.

Kontratua indarrean dagoen epean honako konpromisoak hartzen ditu Lezoko Udalak:

- a.- Kontratututako zerbitzuen funtzionamendu egoki baterako kontratistak behar dituen laguntzak eta aholkuak ematea.
- b.- Lanen zuzendaritza eta kontrola eramatea, Euskara-kultura sailaren bitartez.

6.- BALDINTZA EKONOMIKOAK

2013an, diru-kopuru hau partiden gain ordainduko da:



Lezoko Unibertsitateko Udala

8.000,00 € 455.10.2013.176
42.000,00 € 451.30.2013.069

Ordainketak hiruhilabetetik behin egingo dira, faktura aurkeztu eta onartu ondoren.

7.- LIZITAZIO PROZEDURA.

Prozedura irekiz egingo den lehiaketa bidez esleituko da zerbitzua. Irizpide hauek izango dira kontuan:

Eskaintzak baloratu eta esleipen-proposamena egiterakoan Baldintza Ekonomiko-Administratibo eta Teknikoen Pleguan jasotako xehetasunak eta zehazki honako faktoreek edukiko dira kontutan:

- a) Jarduera-Programaren aberastasuna eta zehaztasuna (jarduera-aniztasuna, metodologia, planteamendu didaktikoa...): puntuaketa osoaren %35 izango da, gehienez, atal honek. (2. Eranskinean zehaztua)
- b) Eskaintza ekonomikoa. Oinarrietan ezarritako muga ekonomikoa hobetzea: puntuaketa osoaren %50 izango du, gehienez, atal honek. (2. Eranskinean zehaztua)
- c) Koordinazioaz arduratuko denaren eskarmentua antzeko jardueratan (curriculumaren bidea erabiliko da neurrak horretarako eta ziurtagiriz egiaztatu beharko da esperientzia): puntuaketa osoaren %15 izango du, gehienez, atal honek. Nolanahi ere, eta neurri txikiagoan bada ere, monitoreen esperientzia ere atal honetan baloratuko da. (2. Eranskinean zehaztua)

8.- ESPEDIENTEA ETA ESKAINTZAK AURKEZTEA.

Espedientea aztertzea.


Lizitazio honetarako espedientea, Udaletxeko Euskara-Kultura Zerbitzuan aztertu ahal izango da, goizeko 9:00etatik 13:30tara eskaintzak aurkezteko ezarri den epea amaitzen den arte.

Proposamenak aurkeztea.

Proposamenak Udaletxeko Erregistroan —informazio bulegoan— aurkeztu behar dira goizeko 09:00etatik 13:30tara, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatzen denetik 15 eguneko epean.

Aurkezpena 1. eranskinean agertzen den eskaera eredu bidez egingo da.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkeztutako proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen aurkeztu. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada, baina horretarako, lehiatzaileak



Lezoko Unibertsitateko Udala


dagokion posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio organoari posta elektronikoz, faxez edo telegramaz, bidalketa egindako egunean bertan.

Hiru gutunazal itxietan aurkeztuko dira proposamenak, eta honako hau aurkeztu beharko da gutunazal bakoitzean:

A gutunazala

- 1.- Nortasun Agiria eta elkarte, enpresa edo entitatea izanez gero Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- 2.- Estatutu, Araudi edota Elkarte nahiz Komunitateko Eskrituraren fotokopia konpultsatua
- 3.- Enpresariak espainiarrak ez badira, baina bai Europar Batasunekoak, nahikoa da lanbide- edo merkataritza erregistro bateko idazpenaren egiaztagiria, dagokion estatuko legediak betekizun hori eskatzen baldin badu
- 4.- Zinpeko aitortpena, non lizitatzailleak bere erantzukizun pertsonalpean adierazi behar duen Sektore Publikoko Kontratu Legeko 49. artikulua kontratatzeko aurreikusitako debeku kasuetako bat berak ere ez duela ukitzen.
- 5.- Lizitatzaila beste baten ordezkari gisa baldin badator, ahalmen notariala behar du.
- 6.- Sozietate edo Komunitate baten izenean egiten baldin badu, horren eraketaren edota ondorengo aldaketaren eskritura, Merkatal Erregistroan behar bezala inskribatua, eta Sozietatea edo Komunitatea ordezkatzeko ahalmena edo, Estatutuei jarraiki, duen karguagatik berori ordezkari dezaiekeela egiaztatzen duen agiria, behar bezala askiatsia.
- 7.- Gizarte Segurantzako kuoten ordainketa eguneratuta edukitzearen egiaztagiria.
- 8.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga ordainduta edukitzearen ziurtagiria.
- 9.- Egitasmoen Koordinatzaile lanetan aritzeko izendatutako langileak Astialdiko Zuzendari tituluaren edo aisialdia antolatze eta animatzeko prestakuntza bermatzen duen titularen baten jabe izan behar duenez, aipatu tituluaren fotokopiak konpultsatua.
- 10.- Zinpeko aitortpena, zeinetan lizitatzailleak bere erantzukizun pertsonalpean aitortu behar duen monitore guztiek eta Egitasmo Koordinatzaileak, euskara ongi ezagutzen eta erabiltzen dutela, eta horiek guztiak 18 urtetik gorakoak direla.

Edonola, ondokoak dira bete beharreko hizkuntza baldintzak: Kudeatuko diren egitasmoak aisialdian euskararen erabilera sustatzekoak direnez, eta lan-harremanak euskaraz gauzatuko direnez, ondoko hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute egitasmo hauetan lanean arituko diren pertsonak:



Lezoko Unibertsitateko Udala

- Koordinatzaileak: egitasmoen koordinazio lanak hartzen dituztenek, ahozko zein idatzizko betebeharrak izango dituztenez, bi trebetasunetan euskara maila ona izango dute.
- Begiraleek: ahoz komunikatzeko gaitasun ona izango dute, egin beharreko lanak gizarte-izaerakoak baitira.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko prozedurari dagokionez, Euskara Zerbitzua arduratuko da hizkuntza gaitasuna neurtzeaz, eta GAI ala EZ GAI diren adieraziko du.

Esleipendunaren ardura izango da langile euskaldunak hautatzea eta edozein aldaketa denean ere ordezkapenak hizkuntza baldintza hauek kontuan hartuta egitea

11.- Enpresaren eskarmentua frogatuko duen dokumentazioa: aisialdiaren esparruan antzerako jardunetan aritu izanaren egiaztagiria eta azken bost urtetan bi urteko eskarmentua egiaztatu beharko da, alegia, aisialdi lanetan aritu izana.

12.- Enpresaren kaudimen edo solbentzia ekonomikoa eta finantzieroa ziurtatzen duen agiria, honako dokumentu hauetako baten edo batzuen bidez:

- a. Erakunde finantzarioen txostena edo arrisku profesionalen kalte-ordaineko asegura.
- b. Enpresa balantzea edo balantze laburpenak.
- c. Azken hiru urteetako negozio zifraren aitortpena (epealdi honetan enpresa lanean aritu bada, behintzat).


13.- Bidezko arrazoiengatik eskatutako erreferentziak aurkeztu ezin badira, ekonomi eta finantza-kaudimena egiaztatu ahal izango da administrazioak ontzat ematen duen beste edozein agiriren bidez.

14.- Gaitasun teknikoa edo profesionala ziurtatzen duen agiria, tituluen bidez, azken hiru urteetako lanen zerrenda aurkeztuz, edota talde teknikoa deskribatuz.

B izeneko kartazalaren barruan

Honako elementuok jasoko dituen eskaintza-txostena:

- 1.- Adjudikatzen diren bi egitasmoen ezaugarri teknikoen arabera proposatzen den Jarduera-programa.
- 2.- Iraganean enpresak burututako era honetako lanei buruzko erreferentziak. Eskarmentua egiaztatua berri ematen duen dokumentazioa.
- 3.- Gazteen aisialdirako egitasmoan parte hartuko duten begiraleen inguruan, —aurrerago aldaketak egon daitezkeela jabetuaz egon arren— aurkeztu daitekeen dokumentazioa: esperientzia eta titulazioa konkretuki: a) aisialdiko monitore



Lezoko Unibertsitateko Udala

diplomaren jabe diren monitoreen zerrenda eta kopurua, behar bezala egiaztatuak eta b) euskararen gaitasuna. Aurkeztutako zerrendan aldaketak egongo balira, begirale berriek ere baldintza hauek frogatu bete beharko dute.

4.- Eskaintza egileak interesgarritzat irizten duen beste edozein gauza, hobekuntzak ere proposatu ditzakeelarik.

C izeneko kartazalaren barruan

Eskaintza ekonomikoa ahalik eta modurik zehaztuenean eta desglosatuenean prestatutako eskaintza ekonomikoa (3. Eranskineko eredu jarraituz).

Udalak eskaintzaileari beharrezkoak iruditzen zaizkion azalpen guztiak eskatu ahal izango dizkio, plikak ireki ondoren eta behin betiko esleipena baino lehen, eskaintza eta bere baldintzak hobetu ezagutzeko.

9.- KONTRATAZIORAKO MAHAIA ETA AURKEZTUTAKO AGIRIEN KALIFIKAZIOAK

Kontrataziorako Mahaia honako hauek osatuko dute:

- Presidentea: Alkatea edota beronek bera ordezkatzeko izendatutako zinegotzia.
- Udal kontu-hartzailea.
- Udalaren idazkaria
- Euskara-kultura teknikaria
- Hizkuntza dinamizatzaileria
- Beste udal administrazioko euskara teknikaria.
- Euskara-kultura teknikaria arituko da ere idazkari gisa.


10.- ESKAINTZAK IREKITZEA ETA BALORATZEA¹

1.- A kartazala irekitzea.

Behin eskaintzak aurkezteko epea bukatuta, lizitatzailerik A izeneko kartazalean aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko du Kontrataziorako Mahaia, batzarraldi ez-publikoan. Aurkeztutako dokumentazioan hutsegite formalik atzemanaz gero, Kontrataziorako Mahaia badu, hala nahi izanez gero, lizitatzailerari hutsegitea zuzen dezan hiru eguneko epea emateko aukerarik. Aitzitik, funtsezko hutsegiteak edo gabeziak dituen dokumentaziolari dagokion eskaintza baztertu egin beharko da.

2.- B kartazala irekitzea.

1.- Baloraziorako: Ikus 2. Eranskina.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondorengo laugarren laneguneko eguerdiko hamabitan (12:00) eta hura larunbata balitz asteleheneko hamabitan (12:00), aurkeztutako B kartazalak irekiko ditu Mahaiak jardunaldi publikoan.

3.- C kartazala irekitzea.

B kartazaleko dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren, jardunaldi publikoan C kartazala irekiko da, kontratatzailearen prefilean adieraziko den egun eta orduan. Dokumentazioa zuzendu edo osatu beharko balitz Mahaiak ahal du hiru eguneko epea eman horretarako.

4.- Eskaintzak sailkatzea.

Irizpide guztiak balioesten direnean, Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu garrantziaren arabera eta esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

SPKLTBaren 152. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaintza anormaltzat edo neurritz gaineratutzat jotzen denean lizitatzailari (edo lizitatzailerei, hala dagokienean) entzungo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa egin beharko du. Kasu honetan, lizitatzailak emandako arrazoiak eta txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzailari egingo dio esleipena, beti ere Administrazioaren lanak egiteko gaitasuna duela.


Aitzitik, kontratazio-organoak eskaintza ezin dela bete uste badu balio anormal edo neurrigabeak dituelako, sailkapenetik baztertuko du eta ekonomikoki proposamenik onuragarriaren aldeko esleipena egingo du, proposamenak sailkatu diren ordenari jarraiki.

Emandako pauso guztien berri emango da espedientean, derrigorrean idatziko diren aktetan jasoaz.

5.- Errekerimendua, hala badagokio, lehen sailkatuari.

Aurreko pausoak eman ostean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita hamar egun balioduneko epean, lehen sailkatuari honako ekintzak egin ditzala eskatuko zaio:

- a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten agiriak aurkeztea edo kontratazio-organoari egoera hori horrela dela ziurtatzeko modu zuzena lortzeko baimena ematea. Ez da beharrezkoa izango agiri horiek berriz ere aurkeztea proposamenarekin batera aurkeztu baditu.
- b) Kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak eskuratzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko agiria aurkeztea, baldintza-agiri honen 20. klausulako e) letraren arabera.
- c) Behin betiko bermea eratu denaren egiaztapena aurkeztea, hala badagokio.



Lezoko Unibertsitateko Udala

d) Jatorrizko agiriak aurkeztea, proposamena osatzen duten kartazaletan fotokopia hutsak aurkeztu badira.

Errekerimendua ez bada aipatutako epean behar bezala betetzen, lizitatzailerak eskaintza baztertu duela ulertuko da eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzailerari, eskaintzen sailkapenaren arabera.

11.- ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Kontratazio-organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzailerari egingo dio esleipena.

Esleipena bi hilabeteko epean egingo da proposamenak irekitzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Horren berri lizitatzailerak guztiei emango zaie eta Erakunde honen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezingo den 15 egun baliodun baino gehiagokoa izan, esleipendunak honakoak egingo ditu:

- a) Administrazio honen bulegoetara etortzea, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.
- b) Aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko publizitate ofizialeko gastuak ordaintzea. Gastu horien zenbatekoa 600 € izango da, gehienez.


12.- ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA

Kontratatutako egitasmoen zuzendaritza eta ikuskapena Udal Euskara-kultura sailak burutuko du. Hori horrela delarik, esleipendunak behar beste erraztasun emango dio udal Euskara-kultura zerbitzuari aipatu zuzendaritza eta ikuskapena egin ahal izan ditzan.

Bestalde, hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipenari dagokionez

Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen euskara-kultura sailak atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuaren (SPKLTB) 52 eta 222 artikulua jarraiki:



Lezoko Unibertsitateko Udala

- a) Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.
- b) Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratu-arduradunak, berariaz prestatutako jarraipen-euskarriak erabilia, sor daitezkeen hutsegiteak zuzendu ahal izateko.

Hizkuntza-baldintzak ez betetzearen ondorioak:

Klausula honetan aurreikusitako hizkuntza-baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 3/2011a errege dekretu legislatiboz onartua, ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

13.- HIRUGARREN BATZURI KALTEAK EGITEAZ

Esleipendunak behar beste neurri hartuko ditu esleipen honetako zerbitzua ematerakoan hirugarren batzuei kalterik egin ez dakien. Halere, kalterik egingo balu, berea bakarrik, esleipendunarena alegia, litzateke erantzukizuna.

14.- BERME EKONOMIKOAZ ETA OINARRIAK EZ BETETZEAZ


Esleipen honen xede den jardueraren ezaugarriak kontutan hartuta, ez eskaintza aurkeztu ahal izateko, ez eta esleipen-kontratua sinatu eta berau indarrean sartzeko, ez da beharrezkoa inolako fidantza edo berme ekonomikorik aurkeztea. Nolanahi ere, Plegu honetan ezarritako oinarrietakoren bat ez betetzeak ordainketen berrikuspena ekarriko luke berarekin, eta kontratazio-organoak hala erabakiko balu Plegu honetan aurreikusitako ordainketen murrizpena, itzulketa edo deuseztapena.

15.- INTERPRETAZIOA

Kontratu honen interpretazio, aldaketa, deuseztapen eta ondorioei dagokienez sortzen diren auzigaiak Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko ditu, eta horren akordioek, berehala bete beharrekoak izango direnek, amaiera emango diote bide administratiboari, eta horien kontra errekurtsio kontentzioso-administratiboa tarteratu ahal izango da.

16.- KONTRATUAREN DEUSEZPENA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 223, 224, 225, 308 eta 309 artikuluetan aurreikusitakoak izango dira kontratua deuseztatzeko arrazoiak, eta deuseztapenaren ondorioak ere artikulua berorietan xedatutakoak izango dira.



17.- KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoen arabera burutuko da. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak onartzen duen, azaroaren 14ko, 3/2011 Errege Dekretu Legislatiboa; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; urriaren 12ko 1098/200a Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, 3/2011 EDLren aurka ez doan arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.


18.- DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLTBaren Hogeita Seigarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

19.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebaztuko ditu eta organoak erabakitakoek administrazioaren bideari amaiera emango diote, hala badagokio, SPKLTBaren 40. artikulutik 49. artikulura xedatutakoaren arabera, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako edozein artikuluren arabera, kontratazioaren alorrean errekurso berezia jartzeko aukeraren aurka egin gabe.

Lezo, 2012-12-21



Lezoko Unibertsitateko Udala

1. ERANSKINA

ESKAINZA AURKEZTEKO ORRIA

Eskaintza egilea:

J/A.k

Helbidea:

N.A.N.

Bere izenean edo

Entitatearen izenean,

zenbakidun Identifikazio Fiskaleko Kodea

duenaren izenean,

HONAKOA DIO:


Lehenengo: Gazteen aisialdia, eta merkataritza eta erakundeak euskalduntzeko planen inplementazioa prozedura ireki eta esleitzeko lehiaketa publikorako baldintza ekonomiko-administratibo eta teknikoen plegua ezagutzen eta onartzen duela.

Bigarrena: Bere erantzukizunpean aitortzen duela berak edo berak ordezkatzeko duen entitate lizitatuak badituela hala ahalmen juridikoa nola behar beste bitarteko lehenengo puntuan aipatu diren egitasmoen inplementazioa behar bezala burutzeko, eta, gainera, bera ez dagoela, indarrean dagoen legeriak ezarritako debeku egoeratariko bat bera ere medio, jarduteko ez-gaiturik edo bazterturik.

Hirugarren: Eguneko data honetan betetzen dituela bere obligazio fiskalak eta Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak.

Laugarren: Adjudikazioa berari ematen bazaio bere eskaintzan eta, nolahi ere, Udalak onartutako pleguan ezarritako baldintzak eta betebeharrak erabat errespetatuz burutuko duela berarekin hitzartutako zerbitzua.

(lekua, data eta eskaintza egilearen sinadura)




Lezoko Unibertsitateko Udala

2. ERANSKINA

Baloraziorako taula	% Gehienez	% Banaketa	Puntuak Gehienez	Puntuak Guztira
a) <i>Jarduera-programen aberastasuna eta zehaztasuna (jarduera-aniztasuna, metodologia, planteamendu didaktikoa...):</i>	35%		35	
- Programen detaileak		14%	14	
- Hizkuntz ohituretan eragiteko estrategiak		7%	7	
- Ondoko balore hauek landuko duten jarduerak agertzea programan ² :		14%	14	
· Hezkidetzeta eta sexu berdintasuna				
· Errespetua eta elkarbizitza				
· Ingurugiroarekiko errespetua				
· Metodologia irekia eta parte-hartzailea				
· Gazteen arteko elkarrekintza				
· Lezoko kultura eta ingurunea				
· Lezoko ingurunea ezagutaraztekoak.				
b) <i>Eskaintza ekonomikoa. Oinarrietan ezarritako muga ekonomikoa hobetzea:</i>	50%		50	
- Muga ekonomikoarekin bat egitea [50.000,00euro]:				
· 250 euro merkeago egiteagatik puntu bat jasoko da, gehienez ere 35 puntu emango dira.		35%	35	
- Beste hobespenak				
· Gehienez ere %2,5 hobespen bakoitzeko, gehienez ere 6.		15%	15	
c) <i>Koordinazioaz edo eta zuzendaritzaz arduratuko direnen eskarmentua aisialdi jardueratan (curriculumaren bidea erabiliko da neurketa horretarako eta ziurtagiriz egiaztatu beharko da esperientzia).</i>	15%		15	
- Sozietate, enpresa edo <i>entitatearen</i> beraren <i>eskarmentua</i> antzeko jardueratan agiri bidez egiaztatu beharko dena				
· Aisialdi programa antolaketa bakoitzeko %2, gehienez ere 4 onartuko direlarik.		8%	8	
- Koordinatzailearen/Zuzendariaren eskarmentua.				
· Koordinazioa/Zuzendari lanetan egindako urte bakoitzeko %2, gehienez ere 3 onartuko direlarik.		6%	6	
TOTAL	100%		100	

2.- Zerrendan dagoenetako bat esplizituki ez agertzeak, %2 gutxiagorekin zigortzen du.



Lezoko Unibertsitateko Udala

3. ERANSKINA

LIZITATZAILEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEK JARRAITUKO DUTEN DIRU PROPOSAMENAREN EREDUA

Lizitatzaillearen datuak:

Izen-abizenak Helbidea
..... Posta kodea, NAN
zenbakia, Telefonoa Helbide
elektronikoa....., zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin.
Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-abizenak
..... Helbidea
..... Posta kodea,
Telefonoa NAN edo IFK zenbakia (pertsone fisiko edo juridikoa
denaren arabera),

Gazteen aisialdia eta merkataritza eta erakundeak euskalduntzeko planen inplementazioa kontratatzeko asmoz Lezoko Udalak dei egindako prozedura ireki bidezko kontratazioan parte hartzeko berri izan dudala, hona hemen nire ADIERAZPENA:

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: €, gehi €, azken kopuru hori BEZaren %ari dagokiona. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta kontratistaren industri onura ere.

2) Arau teknikoen agiria, administrazio-baldintza zehatzen agiria eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudak enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 2012ko aren(a)

Izenpea